

Euskal orria



MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

Euskal harria bere kabuz altxatu zuen Arestik; aldiz, euskal herria denon eginkizuna da. euskal hiriak ponte-ko ugari ditu, Atxaga tartean; aldiz euskal irria zuzenean lotzen da Porrotxeekin. euskal urrian agian, noizbait, neguko jauregia hartuko dugu, eta Koldo Almandozek film bikaina egingo du hura kontatuz.

Euskal orriak prozesu bat gidatzeko ibilbidea marraztu behar du, Euskal Herria etorkizunera eramateko prozesuarena.

Errei politikoan finkatuta dago zein den gakoa: erabakimena, nori dagokion subiranotasuna eta nola bideratu subiranotasun gatazkak. EAEko Legebiltzarrean dagoen egitasmoa gako honi damaion erantzunaren arabera izango da funtsezkoa ala hutsala. Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek berriki egin duten nazioarteko jardunaldiak helburu zehatza zuen: subiranotasun gatazkak bideratzeko kode bat lantzea, Europak bere egin dezan. Eskozia berriro ate joka dabil, Brexitak ez dezan Europatik kanpo utzi. Eta Katalunian ez da desagertuko autodeterminazioaren alde metatu den indarra.

Errei sozialean pandemiak izoztu egin du mobilizazioa, baina agerian geratu da komunitatearen garrantzia elkar babesteko. Txertoa mundu mailakoa da, bai;

baina atzean edo bakarrik geratzen direnez arduratzea, hori hurbilean bakarrik egin daiteke. Eta gizartea mugiarazten duten gaiek hor diraute: jubilatua eta pentsio duinak, feminismoa eta genero berdintasuna, Gure Esku/11gara eta erabakimena, Euskaraldia eta hizkuntza berdintasuna... Euskal orriak sustatu behar luke dinamika sozial hauen arteko artikulazioa eta bateratasuna, bakoitzak bereari ekinez komunitate garapenean eragiteko, elkarrekin, berdintasunera bidean. Euskal komunitate trinkoa eta aktiboa baita herri estrategiaren oinarria, eta estrategia hori gauzatzeko proiektu ororen ezinbesteko euskarria.

Bi erreak beharrezkoak izanik, bien arteko uztardura da hirugarren gakoa. Gero eta gehiago aipatzen da lankidetzaren publiko-soziala, hau da, erakunde publikoen eta gizarte eragileen artekoa. Auzartenean lankidetzazko gobernantza ere aldarrikatzen dute, alegia, deliberazio gune partekatuetan interes-taldearen artean norabideak eta lehentasunak adostea, gero adostutako hori bakoitzak bere esparruan gauzatu dezan. Finean, gizartearen ekimena eta erakundearen ahalmena, biak osagarritasunez baliatzea, herri estrategia bateratuaren mesedetan. Hor daukagu indarra, eta mundu globalizatuaren duin irauteko aukera bakarra. ●

Tontorrak



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Mendian pixka bat ibili den guztiari gertatu zaio halakorik: aldapan gora, tontorra hurrak eta poztu, ailegatu garelakoan. Baina aurrera joan ahala, konturatu gara mendi-gainak leku berean segitzen duela, guk metroak egin baditugu ere. Gailur engainagarriak dira horiek, begi bistan daudenak, baina lepotxoak edo dituztenez, helburua bertan dagoela iradokitzen digute, gezurra izan arren.

Iazko martxotik ere hala gabilta. 2021. urtean sartu gara, aurrekoa gainetik kendu guran, gaitz guztien panazea balitz moduan zifra aldaketa. Gutxi fal-

ta delakoan beti, tontorra toki berean, ukiezin.

Gailurra pandemia aurreko bizitza da, eta iragan denbora dugu helmuga. Konfinamendu osoak tontorra hurbil ikusarazi zigun. Ondoren, udako eguraldiak. Orain txertoak.

Txertoaren promesetik begiratzen diogu maskara bako tontorrari, berehalakoan iritsiko gabela sinistuta. Geratzen zaiguna, ordea, luze eta infinitua egingo zaigu, amaiera agerian egon arren, pazientzia eskatzen digulako, hainbatek saldutako ilusio hutsa delako, astoaren azenarioa.

Gailurra zapaltzeko esperantza ez delako egogezin zapuztu. ●